

Odol emaille berriak bilatzen



Jesusen Bihotza Ikastola LH 4A
Villabona - Zizurkil

ODOL EMAILE BERRIAK BILATZEN

ZERGATIK?

- Istripuetan jendeak odola galtzen duelako.
- Gaixotasun batzuen ondorioz odola galtzen delako.
- Pertsona batzuei odoleko osagaiak falta zaizkielako.
- Jendeari bizia salbatzeko.

GURE HELBURUAK

- Odol emaile berriak aurkitzea
- Lehendik ematen zutenak, baina urte askotan eman ez dutenak, berreskuratzea.

ZER EGIN DUGU GUK?

- Odol emaileen taldekoekin harremanetan jarri ginen: gelako hiru lagun Nievesekin hitz egitera joan ziren.
- Odola ateratzera noiz etorri behar zuten galdetu genion: Villabonara, bi hilabetetik behin etortzen direla esan zigun, hilabeteko azken ostiralean, beraz, apirilaren 25 tokatzen zela.
- Eguna eta ordua jakin ondoren kartela prestatzen hasi ginen.
- Denon artean ateratako ideiekin kartel bat osatu genuen.
- 300 fotokopia atera eta herrian zehar banatu genituen: gure etxeetan, familiakoei, dendetan, buzoietan...
- Kartelak paretetan ere jarri genituen.

- Odola ateratzera etorri zirenean, gelako batzuk, bertara joan ginen ikustera. Oso ondo onartu gintuzten, dena erakutsi ziguten, gure irakasleari nola atera zioten odola ere ikusi genuen.
- Bukaeran, bokadiloak eman zizkiguten bertara joan ginenei.
- Eta gelako guztientzat biligrafoak eta llaberoak eman zizkiguten.

ZER IKASI DUGU

- Odolaren garrantzia.
- Odolak dituen osagaiak.
- Nola ateratzen duten odola eta zenbat.
- Odola emateko egin behar diren pauso guztiak.
- Besteen alde lan egin behar dela.
- Gure lanari esker, odol emale berri batzuk azaldu zirela.

ONDORIOAK

- Lortu dugu pertsona berriak odola ematera joatea.
- Beste batzuk, aspaldian eman gabe zeuden eta etorri dira odola ematera.
- Odol emaleen erakundeok oso pozik zeuden guk egindako lanarekin.


Guk egindako kartela, herrian zehar zabaldu genuena, hauxe da:

ODOL EMAILE BERRIAK BLATZEN ARI GARA

ODOLA GALDU DUTEN

LAGUNEI

LAGUNTZEKO



GAUR ODOLA EMATEA,

BIHAR BIZITZA EMATEA DA

ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU


ANIMA ZAITEZ !!!

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLAKO

LH HAKO IKASLEOK ESKATZEN



DIZUGU



APIRILAK 25

18:30 - 20:30

VILLABONAKO OSASUN ZENTROAN

LH 4A:

- 1.- Maria Alvarez
- 2.- Irati Amenabar
- 3.- Irati Amondarain
- 4.- Imanol Aristi
- 5.- Iñigo Arin
- 6.- Idoia Dominguez
- 7.- Gaizka Ferreira
- 8.- Aitor Gabarain
- 9.- Eider Garziarena
- 10.- June Granado
- 11.- Maider Igaitea
- 12.- Euken Jauregi
- 13.- Laide Jauregi
- 14.- Ander Lizarza
- 15.- Josu Mendizabal
- 16.- Roger Ropotan



Irakaslea:

Idoia Ariznabarreta Ugarte (tf. 943692058 / idoiariznabarreta@hotmail.com)